

# Gipuzkoako Heziketa Konpentsatorioko eta Prestakuntza Okupazionalako Kontsortzioa

*Ezezaguna den arren, gizarte honetako gazteekin balio handiko betebeharrak aurrera eramaten dituen*



**Arantxa Igartua**  
Gaiak-en  
koordinatzailea

*En una sociedad de bienestar las instituciones se ocupan de una serie de problemas que, aunque para*

*la mayor parte de la sociedad son invisibles, hacen de la nuestra una sociedad solidaria.*

*En un grupo social como el vasco, atender a las necesidades de los jóvenes marginados, jóvenes de nuestro entorno con problemas de integración, jóvenes inmigrantes o minorías étnicas hacen grande a esta sociedad.*

*Ésta es la labor que desde el Gobierno Vasco junto con la Diputación, con la ayuda de centros educativos o incluso desde las propias familias y en colaboración directa de gestión económica y dirección realiza el Consorcio para la Educación Compensatoria y Formación ocupacional de Guipúzcoa.*

*Este consorcio y las labores que llevan a cabo son los temas que os presentamos en este artículo.*

**IZEN HORREKIN** ez da harrizkekoa batzuek ez jakitea zer den eta beste batzuek, nahiz eta zer den jakin, ez dute lortzen identifikatzea ematen duten zerbitzua duen izenarekin. Beno, eta hori gehiago gerta ez dadin, garrantzitsua iruditu zait artikulu hau idaztea ea argitzen ditugun Kontsortzioari buruz ditugun zalantza guztiak.

Beraz, artikulu honen helburua hori izango da, hau da, zeintzuk osatzen duten Kontsortzioa, zertarako sortzen den, bertatik zer egiten den, kontsortziora nor jo dezakeen, nola eta zer lortuko duen... beste galdera batzuen artean erantzunak jasotzea.

Kontsortzioan lan egiten duten bi pertsonak aurkeztuz hasiko naiz. Ines Elorza, bertako gerentea eta Gregorio Olasagasti gerentearen albokoa edo eta zuzendari orde. Bien artean Kontsortzioa kudeatzen dute. Egoitza Antiguako dute, esan beharrik ez dago Donostiako leku zoragarri batean dagoela eta bere bulegotik orain aipatuko ditudan proiektu hauek zuzentzen dituzte.

Egoitzara abiatu naiz beraiekin elkarriketa bat izateko eta egin didaten harrera hobezina izan dela esan behar dut eta behar nuen informazio guztia eman didatela atsegin handiz. Beraz kontatuko dizuet Gipuzkoako Heziketa Konpentsatorioko eta prestakuntza Okupazionalako Kontsortzioaren funtzionamendua eta eskoletan eta familietan ematen duen zerbitzua.

Gero eta aldakorragoa den gizarte honetan, nerabeengan eta gazteengan arazo berriak sortzen zaizkigu eta ez bakarrik berriak, atzeritik datozenekin aniztasuna ere gero eta nabariagoa da.

Honekin esan nahi dudana zera da, zenbaitetan bai familietan eta baita ere eskoletan ditugun baliabideak, gero eta gehiago direla, baina ez direla nahikoa eta mota guztietako laguntzak eskertzeak direla. Horregatik orain dela 25 urte gutxi gora behera Kontsortzio hau sortu zen erakunde autonomo bezala, juridikoki hitz egiten badugu, eta bi finantziario iturri nagusi dituen. Alde batetik Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila eta bestetik Foru Aldundiko Gazteria Saila, bakoitzaren ekarpena % 50ekoa delarik. Helburu nagusi bat eman behar bagenio beti gazteentzako hainbat laguntzen inguruan egongo litzateke.

Kontsortzioa sortu zenetik programa ezberdin asko ezagutu dira, lanbide heziketara zuzendutakoak, etengabeko prestakuntzari edo eta Europatik luzatutakoak eta Kontsortzioak hemen bidertzen dituenak; baina une honetan lau proiektu zuzentzen eta kudeatzen ditu.

Lehenengo proiektua Udaletako Kale Hezitzaile programetako formatzaile, hezitzaile edo eta koordinatzaileena da. Udaletan Kale Hezitzaile programaren barruan Kale Hezitzaileak kontratatzen dituzte, baina irudi honen gainera koordinatzaile bat egoten da, arduradun hau Kontsortzioak bidaltzen du. Honen funtzionamendua hauxe izaten da: normalean, familia edo eta eskola kontratatzen da gazteak arazoak dituela. Eta arazoak esaten dugunean era askotako arazoak izan daitezke (drogak, integrazio arazoak, gazte delinkuentzia, eskola absentismoa...), orduan, argi izaten dena zera da, familiak eta eskolak bakarka ezin dutela ara-

zoa menperatu, gainezka egin diela eta Udaletako gizarte zerbitzuetara joko dute laguntza eske. Hemendik abiatuta Kale Hezitzaileak martxan jarriko dira. Hauek normalean heziketa komunitarioan adituak dira. Elkartuko dira eta koordinatzailearekin batera interbentzioa diseinatuko dute eta lan taldea osatuko dute. Hortik aurrera Kale Hezitzailearen lana hasten da, bere lana taldea dinamizatzea da, aukera berriak sortzea kirolean, kultur etxeetan, gazte lokaletan eta abar, dinamika positiboak sortu behar ditu, eta ez bakarrik hori, inguruan sartu egin behar du, lagun taldean onartua izatea lortu beharko du, arazoa duen gaztearekin konektatu egin behar du, nolabait esateko konkistatu egin behar du. Batzuetan, taldean sartu eta gero konturatzeko dira laguntza behar duen gaztea ez dela bakarra, baizik eta beste gazte batzuegan, inork oraindik detektatu ez dituen arazo berriak ikusten dituzte. Oso garrantzitsua da testuinguruan sartzea eta beraietako bat zarela sinestea eta izatea. Guzti hori lortzen denean lanaren erdia egin dago. Horrela kontatuta oso lan zaila eta konplexua iruditzen zait baina egia da dena ondo joaten denean oso lan eskertua eta baloratua dela.

Aipagarria da ere zenbait Udaletan programa hau duela hogeitun urte martxan jarria dagoela, beste leku batzuetan agian bi urte besterik ez dira martxan jarri zutela eta azkenik badaude oraindik martxan jartzeko edo ez jartzeko zalantzatan dabilzanak. Beraz leku batetik bestera esperientziak oso desberdinak suertatzen dira. Hala eta guztiz ere Kontsorzioetik bidaltzen den formatzailea beti beraien erreferente bezala izango dute.

Bigarren proiektua ikastetxetara zuzenean eskaintzen den Bitartekari Kulturala da. Argitu egin behar dut proiektu guzti hauetan beti, ikastetxearen erreferentea Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila dela eta ez Kontsorzioa zuzenean. Beraz, Ikastetxetik beharra sentitzen denean Hezkuntza Sailari zuzendu behar zaio eskaera eta ez Kontsorzioari zuzenean. Orduan, Hezkuntza Sailaren eskuetan egongo da beharra baloratzea eta Kontsorzioa-



ri baliabideak eskatzea ala ez. Kontsorzioa beraz beti Eusko Jaurlaritzaren esanetara egoten da.

Zertan datza bigarren proiektu hau ordea? Proiektu honen bitartez ikastetxetan bitartekari kulturala izango dute. Seguruenik, itzultzailea dutela esango banu, askok konturatuko zintzen zertaz hitz egin behar dudana. Gaur egun badakigu gure ikastetxetan etorkin ugari dagoela eta gero eta gehiago ari direla etortzen. Honetaz gain badira nazionalitate ugariak, hau ere gero eta zabalagoa da. Ikastetxe batera, atzeritik, ikasle bat datorrenean, jatorrizko hizkuntza erdara, ingelesa edo frantsesa ez duenean, lehenik eta behin komunikazio arazoak sortzen dira. Arazoak ordea, ez dira izaten bakarrik gure hizkuntza ez jakitea, hau da, arazo linguistikoa, baizik eta ikusten da ezberdintasun kulturalak, eta kurrikularrak ere handiak izaten direla. Programa honen ezaugarri bat da ikastetxean bertan egiten dela lan eta gaztearekin ez ezik familiarekin ere. Gurasoekiko harremanak oso garrantzitsuak dira egoera berezi eta zail honetan eta bitartekariaren lanetako bat harreman hori erraztea izango da (itzultzaile lana, akademikoki nola datorren aztertzea, hemengo ohituretara gerturatu...) eta beti ere familia alde batera utzi gabe. Kultura ezberdineko familiei guretzako guztiz normalak diren gure ohituren berri eman behar zaie. Adibidez porrak eta hauen banaketa ikasturtean zehar, eskolan antolatutako txangoak derrigorrezkoak direla, igerilekura joan behar dutela, jangelan bazkaldu daitekeela, zenbat

denbora duten bazkariko tartean. Guzti hau, guk inoiz garrantzirik eman ez dugun gauzak dira betidanik barneratuak izan ditugulako, guk badakigu eskola eta gizartearen funtzionamendua. Baina kanpotik ikusita dena berria da eta are gehiago, ez dute jakin beharrik. Programa honen bitartez eta bitartekari kulturalaren laguntzarekin gazteari sarbide leunago bat emango zaio. Hori izango da helburua. Lehen aipatu dudana moduan eskaerak egiteko Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza saila erabiliko da. Premia sentitzen denean Hezkuntza Sailara jo behar da. Bertan baloratuko da beharra eta Kontsorzioari eskatuko dio bitartekaria ikastetxera joateko.

Kontsorzioak eramaten duen hirugarren programa afekzio psikiko edo psikiatrikoak eta jokabidean arazoak dituzten haurrez arduratzen da. Programa hau zertxobait desberdina da. Eskakizun bidean beste atal batzuk agertzen zaizkigu. Alde batetik haur hauek EPIren (osun mentaleko mediku edo psikiatzen) txosten bat izan behar dute eta bestetik, orain arte ikastetxeak Eusko Jaurlaritzari aurkezten zion arazoa eta Eusko Jaurlaritzak irteera ematen zion Kontsorzioaren bitartez beharra sumatzen zuenean. Kasu honetan ikastetxeak Berriztapen Pedagogiko zerbitzuetara, hau da, Berritzegunera, jo behar du arazoa aurkezteko. Berritzegunetik txosten bat egingo da Hezkuntza Sailan aurkezteko eskaera egiteko orduan eta hurrengo fase batean sartuko litzake Kontsorzioa terapeuta bat bidaliz ikastetxera.



Azken programa gutxiengo etnikoei zuzendutakoa da. Programa hau ijitoei zuzendua dago eta bere helburua ikasleak eta familiak sozializatzea da, bai eskoletan eta bai eta inguruan ere. Programa honetan baliabide eskaera Hezkuntza Sailaren bitartez egiten da, hau da, ikastetxeak Hezkuntza Sailari



zuzenduko dio eskaera. Beste gauza batzuen artean hauek dira eginbeharrak: ikastetxeko irakasleekin batera proiektu komun bat sortzea bultzatzea, taldeko lana sustatuz eta ikasleen errealitate kulturalaren ikuspegia transmitituz, ikasleekin jardutea, gizarte-trebetasunak eta ikastetxean eskolari edo gizarteari dago kienez ezarrita dauden portaera-arauak sustatuko dituzten eraikuntza pertsonaleko prozesu horiek landuz.

Etorrizunari begira, badirudi, instituzioetatik aztertzen ari direla 5. proiektu bat. Oraindik ezer zehaztu gabe dago baina nerabeak eta lan munduaren ildotik joango litzateke. Erakunde publikoek oso interesatuak daude eta kanpotik ikusita zenbat gaztek uzten dituen ikasketak bukatu gabe eta askotan orientazio faltagatik, ez da harritzekoa nolabaiteko laguntza beharrezkoa ikustea. Hala eta guztiz ere oraindik ez dago martxan eta gainera ez dakigu aurrera jarraituko duen ala ez. Asmoak besterik ez dira.

Hauek dira Kontsorzioetik, une honetan, zuzentzen eta kudeatzen diren programak.

Programa guztiak badituzte ezaugarri batzuk errepikatzen direnak. Batzuk aipatu ditugu. Geratuko lirateke Kontsorzioak eskatzen dituen langileen kontratazioa eta aurretik aipatutako progra-

men iraupena. Esan behar dut Kontsorzioaren atzean enpresa batzuk daudela. Lan enpresa batzuk, hauek lan poltsen bidez langileak kudeatzen dituzte eta momentuz, eskaintzari dagokionez eta bidalketetako azkartasunari dagokionez ez dago arazo handirik. Kontsorzioaren atzean giza baliabideen enpresa batzuk daude non behar diren pertsonak kontratatzen diren. Kasuak kasu, beti izango dira terapeutak, psikologo-terapeutak, gizarte hezitzaileak edo eta heziketa komunitarioan adituak. Normalean Eusko Jaurlaritzak Kontsorzioari eskaera egiten dion momentutik egun bat edo biko tartean ikastetxeak baliabidea bertan izango du.

Programen iraupenari dagokionez bi eratakoak dira, bitartekariak guztira 30 ordu egiten dituzte. Suposatzen da ordu kopuru horrekin planteatzen diren helburuak lortzen direla. Besteak ordea 2 urtetarako izaten dira. Guztietan iraupena amaitu ondoren ebaluaketa bat egiten da. Aztertzen da programarekin jarraitu behar den ala ez. Begiratu da helburuak lortu diren ala ez eta honen arabera erabakiak hartuko dira.

Ekainean gaude eta orain balorazio, azterketa eta ebaluaketa garaia da. Kontsorzioa ez da lan honetaz libratzen. Ikasturte honetan martxan jarri dituen proiektu eta langileen lana aztertzea tokatzen zaio. Normalean txosten hauen emaitzak positiboak dira eta ez bakarrik hasiera batean planteatzen diren helburuak lortzen direlako, baizik eta lortzen diren sinergiengatik. Honekin zera esan nahi dut, azken batean gazteekin (kanpotik etorritakoa direla, integrazio arazoak dituztela), gaixo dauden umeekin, familiekin, hau da, pertsonekin lan egiten da. Arazoak dituztenekin. Bere bizitza zertxobait erraztea lortzen bada Kontsorzioak planteatutako helburuaz gain giza baloreetan ere lorpenak ditugu eta hau guztion mesederako da ez bakarrik beharrak dituztenentzat. Inesek ere hori aipatu du. Pertsonak pertsonekin lanean ari diren momentutik era askotako loturak sortzen dira baina guk aipatu nahi duguna lotura afektiboa da. Bai terapeuten, bai bitartekari kulturalen, bai kale hezitzaileen, inplikazioa horren

garrantzitsua da, batzuetan lorpenak eta loturak betirako izaten dituztela.

Orain da momentua Inesek eta Gregoriok Kontsorzioak eskaintzen duen zerbitzua baloratzeko. Beraiek nahiko berriak dira funtzio honetan, hala eta guztiz ere balorazio guztiz positiboa egin dute. Martxan dituzten proiektuek oso harrera ona dute, beraiekin kontaktzen da proiektu berri bat martxan jarri edo ez instituzioetatik bultzatu nahi izaten denean eta dituzten proposamenak entzuten dira. Oso argi dute Eusko Jaurlaritzaren menpe lan egiten dutela eta eskaera guztiak hortik bideratuak egon behar direla. Ez direla eskoletako edo familietako erreferentea. Erreferenteak, kasuak kasu, Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila direla.

Kexa bat badugu ordea. Ez da ezagutzen, ez dakigu zeintzuk zareten. Ikastetxeetan ez dute programen berri. Ez dira iristen leku guztietara eta informazio bidearen sarean etendurak daude. Gauza bat da erreferentea ez izatea eta beste bat oso desberdina eta larriagoa, nire ustez, ez jakitea hor zaudetela. Egia da ere ikastetxeetan gaur egun arazo bereziei aurre egiteko baliabideak asko ugaritu direla eta mezua beti ere hau da: dituzun baliabideak ondo kudea itzazu beharrei aurre egiteko. Kontsorzioaren programen laguntza zure baliabideekin exkax geratzen zarenerako izango da. Arazoek gainezka egin dizutenean. Sare horretan elementu asko dago, familia, ikastetxea, eta ikastetxea esaten dudanean irakasleak, kontsultorea, orientatzailea, zuzendaria sartu nahi ditut. Ikastetxeetatik kanpo baina hauen menpe Berritzeguneak eta bertako aholkulariak daude. Elementu hauek bat egiten badute, sarearen etendurak ez ziren zertan antzeman behar eta informazio guztia mutur batetik bestera ibili beharko litzateke. Momentu honetan hori ez da horrela gertatzen; asko ginen Kontsorzioaren berri ez genuenok eta horregatik espero dugu artikulua honekin, gaineratik bakarrik izan baldin bada ere, bete gabeko tarte hori bete izana. Hemendik aurrera ezingo dugu esan Heziketa Kontsultorioko eta Prestakuntza Okupazionalako Kontsorzioa zer den ez dakigunik.